

Pinuen banda marroiaren kontrako lurreko tratamendua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak martxoaren 21ean argitaratu du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) intsinis pinu eta larizio masa gaixoetan banda marroia pairatzeko lurreko tratamendua oxido kuprosoarekin (Nordox) baimentzen duen foru agindua. Produktu hau Gipuzkoan lurretik aplikatzeko epea apirilaren 1etik uztailaren 29ra izango da.

Gipuzkoako mendietako Pinus radiata eta Pinus nigra unadetako gaixotasun kriptogamiko defoliatzaileen aurka % 75eko [WG] P/P oxido kuprosoarekin formulatutako produktu fitosanitarioak lurrean aplikatzeko baldintzak arautzen ditu aipatutako foru aginduak.

Tratamenduak gauzatu ahal izango dira, betiere Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Nekazaritza Ekoizpenaren Osasun Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko otsailaren 10eko Ebazpenean ezarritako baldintzetara egokitzen badira. Ebazpen horren bidez, salbuespenez baimentzen da produktu fitosanitario horiek merkaturatzea eta lurrean aplikatzea, eta urtean ezingo dira bi aldiz baino gehiago aplikatu.

Tratatu daitezkeen lurzatiaren zerrenda eta deskribapen kartografikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak argitaratuko ditu webgunean: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/mendiak-eremunaturalak/mendi-kudeaketa/baso-kudeaketa/baso-osasuna>

Foru agindu honetan aurreikusitako tratamenduak egin nahi dituzten pertsonak aldeztu aurretik jakinarazi beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuari, aipatutako web orrian ezarritako formatuan, tratatu beharreko lursaila edo partzelak adieraziz – aurreko paragrafoan adierazitako zerrendan egon beharko dute nahitaez–, eta aipatutako web orrian horretarako eskuragarri dagoen formularioa behar bezala beteta bidaliz.

Hemen duzue GAO-n argitaratutako foru aginduaren esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2022/03/21/c2201578.pdf>